

Euskera batua. Mitxelenaren itzaldiak

Zeruko Argia, 398. zk., 1970-10-18: 7.

Joandaneke irailaren 25-etik 39-era, eman zituen Koldo Mitxelena izkuntzalariak Donostiako Apaiztegi-aretoan bere itzaldiak.

Lekua bete bete egin zan. %-tik 90 *gazteak*, eta oietatik, eta oso pozgarria hau ere, %-tik 60 andereño eta laguntzailleak izango ziren.

Bost itzaldi hoiek gaiz eta etorpidez egitaz bat diren bezala, etenik gabeko laburpen bat egiten saiatuko naiz; eta nere ohar-nota interpretazio bidez ematen ari naizenez, erraza da noizean behin, uste gabeen, Mitxelena jaunak esandakoren bat oker jasotzea; ezta nahita egiña izango.

* * *

Ez luzatzeagatik, ez ditut aitatu linguistika gaian adierazi zituan zenbait puntu. Zuzen zuzenean batasunari buruz esandakoei eldu dezaiozun.

Batasunaren billa egin diran saioak. Orain dala 50 amar urte, Euskaltzaindia kezkatu zen; gramatikariak ere egin zituzten lanak; Azkuek bere *gipuzkera osotua*rekin bai. Azkueren asmoz: erderatik zetozen itzek ("erregek", esate baterako) bi kondizio behar zituzten bete: 1) berez aspaldiko euskaltasuna izatea, eta 2) jatorriko euskeran bee ordeko bat ez izatea. Idazleek, betikoek, nola jokatu duten ezin ahaztu: Lehen liburua *Etxeparek* baxenabarrez, bere izkuntzan, egin zuen; *Leizarragak* (1571) berak (*Testamentu berria* eta beste) bere erritik kanporako zabalkunde billa ahal zuan euskerarik zabalena artu nahi izan zuen, eta nola zenbat eta atzerago joan euskalkiak batuago dagozen, izkuntza zahar xamarra erabilli zuen. *Sarako Etxeberri*k XVII gn. mendean, Axularren euskera artu behar dugula *batua* bezala esaten digu. *Larramendi* asi arte ez zan Gipuzkoan (Bizkaian bai) euskerazko libururik; honek egin zuan lehengo euskeraren iztegia, eta bere lehengo gramatikaren bidez euskeraren legeak biltzen saiatu zen; ez zuan batasun kezkarik izan: euskalki gehienak edo denak zekizkiena izango zen beretzat euskaldun onena; alere, euskalkiak bere artean urbiltzea nahi izan zuen. *Iztuetak*, Larramendik erabilli eta asmatzen zituenak lasai erabiltzen zituen; eta obeto, berezko bizitasunez jaxten baitzuan euskera. *Arana Goiri*: azken hontan kontra eta aldeko asko izan dituen gizon hau euskerari buruz dagokion mailla nabarmen batean agertzen zaigu; "ez dakit ondo ba dakigun gizon honek zer egin nahi izan zuen; dana dela, euskal idazle berriak sortu eta bultzatu zituan; bere auzi nagusia, ortografia izan zen; batasun lanean ez zuan ainbeste egin, nahiz eta gero euskalerrri osoaz arduratu bazen ere, lehen Bizkaiaz bakarri kezkatu baitzen; Arana Goirik ez ditu atek ixten; idazkeran ortografia-batasuna sartu nahi izan zuen (tx, x, rr eta abar); orain bizi balitz, ba liteke guk orain bezala jokatzela!; oraingo batasun zaleak Arana Goiriren aurka dabiltzala esateak ez du zentzurik. *Eusko Gogo*a: Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia eta beste batzuk lan asko egiñak dira aldizkari hontan;

Aitzolen jarraitzaileak dira hoielik; Aitzol bera idazle aundia izan ez bazen ere, eragille aundia izan zen. *Olabide*: beti bere aldetik aritu zen, baiña Orixerekin ar-eman aundiak izan zituen; ez zuen Gipuzkera oiñarri bezala batu behar genduenik esan, baiña idazten hontan ahalegindu zen.

Mitxelena berak etxetik jaso zuen euskeratik gora personalki izan zituen eragiñak aitatzen ditu. Gaixorik zegoala, *Zeruko Argiak* eman zion lehengo irakurgai, "euskal joera andik dakarkit"; don Martín Lekuona eta espetxea (*Luzean*, gaztelari onenetakoa zen idazleari zor dio asko) izan zituan gero idazteko bultzada eman ziotenak; ez zuan orduan mugaz auzko idalerik ezagutzen, eta Axular eta gaiñontzekoak, Aita Mokoroaren *Genio y lengua* liburuan ikusitako zatiak eraginda asi zen irakurtzen; ordurarte, 1900 arteko literatura guzia galtuta ere ez zitzaion ezer ajola; izango gero, idazle zaharrak (eta lan nekagarri bat bezala) irakurtzen asi zanean konturatu zen ba zegoala ederrik!, eta gaiñera euskeraren zimentuak or zeudela!; Orixeren bitartez ere idazle hoiak kutsua sartu zen Euskalerrian, Orixek ondo ezagutzen baitzituen gure klasikoak.

"Nere gaurko jokaera honan –dio Mitxelena jaunak– ez nago iñorekin; ez naiz gazteen gidari, eta iñoren izenean ere ez naiz ari; nere belaunaldiko jendearekin sentitzen naiz".

Euskaltzaindia sortu zen, eta batasun aldeko asmo onak asko izan ditu azkenengo 50 urte hoietan; baiña, *zer egin du?*; euskera, euskaldun, Euskaltzaingoaren ordeztu Euskaltzaindia behar zirela eta honelako gauza batzutatik kanpora oso gutxi; Azkuek, Azkue bezala lan asko egin zuen euskera *osatu* (ez osatu) baten alde, baiña ez zion lan hau Euskaltzaindiari eskeiñi eta ga hontaz ez zan iñoz erabakirik artu. "Gure gazte denboran beti gauza baten zai geunden: Euskaltziaren iztegia!". Euskaltzaindiak, eta erderaz, aipatzen zuen noizean behin: "La comisión del diccionario continúa sus trabajos" eta horrelakorik, baiña aurrera-biderik ez zan ikusten; akademia guzietan egin diren iztegiak bezalako bat egin behar zuan Euskaltzaindiak, baiña ez zuan egin. Gerra ezkerotik gauza oker asko egin dira, baiña zuzenak ere bai: Euskaltzaindiaren lehen batzarretan erderaz egiten zen, orain euskeraz: euskerazko aldizkariak eta liburuak ugaritu eta indartu dira. Bigarren ldi hontan ez du Euskaltzaindiak lan asko egin; *agiria* berandu agertu zen, eta auzi gogorra sortu du. Gure izkuntza maitasunez gehiegi estutzen dugu, eta *maitasunaren ondoan errespetua ere merezi du*; euskera *den bezala* artu behar genduke, eta *ez guk nahi dugun bezala*.

Arantzazukoa: Aldamenean eragilerik izan ez bazuen, Euskaltzaindiak ez zuen, behar bada, batzarrik gertatuko. Baionako eta Ermuko idazleen batzarrak bultzata egin zen eta *agiria* urten zen. Hontaz bi gauza: mintzatu ziren. Euskaltzaindikoak eta eraman genituen iritziak aztertu genituen. Ez zan *h* arazoa bakarrik aztertu, baiñan hontaz *erabaki* bat artu zen; ona edo txarra, baiña artu zena *erabakia* izan zen.

Batasuna zertarako?: Euskerak *iraun* dezan. Biziko bada, kultura mailla bat artu behar du, eta ikastolako lehengo eta bigarren maillako ikastaroak euskera utsean emateko gertu behar dugu; euskerak, dagoenean, berea egin du. Elkar ondo adierazi eta ulertzeko, bi euskelkitako euskaldunek erderara jotzen dute; batez ere umeak, eta gai askotaz ari diranean, jakitunak ere bai; ez-jakiñak ez, bere artekoak erabiltzeko ainbat euskera ba dakite-ta; euskera batua behar dugu zenbait gai erderara jo gabe erabilliko ba dugu. Euskera batua non erabiltzeko behar dugun?; ikastoletarako batez ere!, eta elkar erraz

komunikatzeko bideetarako; izparringi, irrati eta gaiñontzekoetan erabiltzeko. Literaturako ez, or bakoitzak euskera bere gixa landu dezekoan alorra delako. Izkera behar dugu, apaindura gabe elkar adierateko gai den otsa; zehatz eta ugaria, bai, eta, gaiñera, apaindura badu obe, baiñan batez ere euskaldun guzientzat uler-bide bera! Eta hau gai guzietan. Eliz-gaietan aski goratua izan da orain arte eliz-gizonek egin duten lana; baiña Eliza *danok* osatzen dugu, eta ez dugu eliz-gizon ez geranok oraingo lanetan ezer egin, ez baitigute lanik eskeiñi. Euskalki guziak *zerbaiten* euskalkiak dira, muin komun bat ba dute; muin horren billa ibili behar dugu, euskera batuak behar du gure gaiñetik dagoen neurri bat; guk ba dakigu batera edo bestera erabili behar dugula, baiña ahal ba da duk gerok sortua izan gabe, gaiñetik dagoen legea, lehenago batua arkitzen duguna. Orain, noraiño joan behar dugu atzera?; muga bat jari behar dugu; Lizarragarena artu zuan Krutwigek; Villasantek, lapurtar klasikoa (lapurtarrik ez da orain, eta ezagutzen ez dugunik ezin dugu artu); "ni, eta beste iñor ere ez, ez da muga bat jartzeko iñor; baiña arian joan behar dugu, ez egonean!...

Itz berriak (neolojismoak) sortu behar diren ala ez?: mugak jartzen erraza da: euskerazkorik baldin badago, erabillia bada, naiz eta lehen erderatik etorria izan, artu!; berriak behar diranean: beste izkuntzetatik artu edo guretik sortu.

Aho izkuntzatik ahal dugun urbillena ibili behar dugu; baiña zein euskalkitatik?; emen bereiztasun bat egin beharrean arkitzen gera. "Nik euskera batua diodanean ez dut esan nahi *zearo batua*; denak dakigun forma bat artu behar dugu, bai, baiña aldakuntza txiki batzuk (erdaraz "je m'assis", "je m'assois" –eseritzen naizbiak erabiltzen dira); *baiña bide bat danok jakin behar dugu*.

Batasunerako pausoak: "Erria" erabiltzen dute batzuk maixu bezala; zer da "erria"?: euskaldun izan eta euskeraz gaizki egiten dutenak baiño erriago ahal dira jaiotzetik euskaldun izan eta euskeraz gaizki egiten dutenak? Erriak badu azken itza: hau da egia, ontzat artuko du edo baztertuko du, eta erriak euskera artuko du, edo baztertu eta erdera artu du, eta iñork ez dio erriari eskubide hori kenduko; erria euskera moldatzen, gora eta behera, ari da beti; gizon batzuk, ordea, idazten batez ere, eragin aundiagoa ematen die (lehen sermolariak eta bertsolariak bezala), eta irakurleak aien itzak eredu bezala artzen ditu; eredu beharrean gera, eta ontan idazleak badu erresponsabilidatea.

Lan hontan ari den taldea ez dator politikaz eta amorez edo gorrotoz bat; hontan lanean ari geranok ez gera gai askotan bat, baiña gutxi gora-behera batasun bidea ikusten dugu berdintsu. Ez dut uste uste euskaltzale hoiek azpi-janik egiten ari direnik, eta iñungo dirurik jasotzen dutenik ere; azpi-jana, baiña nabarmenegi, bai, egiten dute talde honen aurka bat (natura kontra) bai hiperbizkaiera eta ba hipergipuzkera defenditu nahian ari direnak.

Azken itza erabakietan Euskaltzaindiak behar luke; *erabakiak* hau esan nahi du; gero erriak betetzen duen ala ez beste kontua da, *baiña Euskaltzaindiak erabakiari bere itzala eman behar dio*; behar ba da, gaizki artu batasun billa dabillena gerra sortzen bakarrik ari direla, bereiztasun gehiago sortzen dituela; eta alde batetik, egia da; euskaldun askok bai baitakigu euskeraren *aldaketak* gehienetan txarrerako izan direla; baiña bestetik, aldatu gabe euskerak ezin du iraun!, eta hontaz gerra ohea da pakea baiño, euskerari pakean iltzen uztea baiño!

Batasuna noizko? Epe jakiñik ezin dugu jarri; "batzuen esku balego, eperik ez legoke, eta beste batzuk presakaegi dabilta nere ustez; neretzat beharrezkoa hau da: lanean asiak egotea eta lanean jardutzea; ala ere denbora behar da. Bestetik, batera ari bear dugu: idazleek batera eta ikastolek bestera jotzen badute, ez dugu ezer aurreratuko! Denbora behar da, bai, eta, bestetik, presaka ibili behar dugu, baiña poliki!".

Iztegi aldetik: *Batasunaren Kutxa*-rekin ez nago soso konforme, baiña uste dut onenetakoa dela. Nik uts bat arkitzen diot: 5.000 itz dituan honelako 25.000 itzeko bat behar genduke lehenbailehen, eta ez bi lagunena, askorena baizik; bakoitzak bere jakintza saillean itzak gertatzen joan behar dugu.

Ortografia: *H* dela eta ez dela aritzea ez da naikoa; Euskaltzaindiak beste auzi asko erabaki behar du; lan hoiak egiteko daude eta egin behar dira. *H* kontua zergatik sartu den? Bokal artekoak ez du dudarik: Lizardik *zâr* idazten asi zen; ainbeste lekutan esaten danean, ez ahal da obe *zahar* idaztea? Ubillos amasatarrak *h* erabilli zuan, eta Mendiburuk ere itz askotan bai. Morfolojiaz bat egitea erraza da *batera jokatzan ba dugu!* Elizaldeek orain dela 50 urte esana: ixtillua aditzean, eta batez ere aditz laguntzaillean, dago. Eskeiñiak bi aditz ere izan dira *Kutxan*, eta, erabakia azkar eman behar dela?, obe da elkar-izketan asi, eta gero etorriko da.

Baiña elkar-izketa hau danon artean erespetoaz eta elkarri entzunez egin behar dugu.